

# Piarres Larzabalen lehen antzerki dramatikoak: *Etxahun* (1951), *Bordaxuri* (1952). Euskal kultura oinarri gisa

Piarres Larzabal's First Dramatic Plays: *Etxahun* (1951),  
*Bordaxuri* (1952). Basque culture as a foundation

JON CASENAVE

Université de Bordeaux Montaigne  
Jean.Casenave@u-bordeaux-montaigne.fr

*Recepción: abril de 2025. Aceptación: abril de 2025.*

Patri Urkizu, antzerkia maitatu eta landu duen  
ikerleari, omenez eta esker onez.

**Laburpena:** 1950eko hamarkadan Piarres Larzabalek bide berria ireki zuen Ipar Euskal Herriko antzerkian. Frantses teatro klasikoa eta euskal tradizioa uztartuz, obrak idatzi zituen euskaraz, kulturen eta historian oinarrituta. Larzabalen antzerkiak bi erro nagusi ditu: alde batetik, Molière eta Racine bezalako autore frantsesen eragina; bestetik, euskal kultura herrikoia, tobera, bertso eta pastoraletan oinarritua; haren lanetan, komedia eta drama uztartzen dira, betiere euskal gizartea eta balioak islatzeko asmoz. Artikulu honek *Etxahun* eta *Bordaxuri* antzerki lanak aztertzen ditu, XIX. mendeko euskal pertsonaia historikoak eta bertso zaharrak oinarri hartu zituzten lanak, baina askatasun handiz moldatu zituen, drama eta pasioaren zerbitzura. Aita-semeen arteko gatazkak, amodio trabatuak eta gizarte tentsioak ageri dira lanotan, mekanika tragiko baten barruan. Antzerki egile gisa, Larzabalek arte dramatikoaren kode klasikoak (unitateen legea, ekintzaren egitura...) bikain menderatzen zituela erakusten dute antzerki lan hauek, pertsonaiak ez batere lausoak sortuz: indar handiko gizon-emazteak dira, gatazken erdian bizitzaren tragikotasun osoz murgildurik.

**Gako hitzak:** Piarres Larzabal, antzerkia, klasikoa, euskal tradizioa, euskal kultura

**Abstract:** In the 1950s Piarres Larzabal opened a new path in the theatre of Northern Basque Country. Combining classical French theatre and Basque tradition, he wrote works in Basque, based on culture and history. Larzabal's theatre has two main roots: on the one hand, the influence of French authors such as Molière and Racine; on the other hand, the popular Basque culture, based on *toberak*, *bertsolaritza* and pastorals; his works combine comedy and drama, always with the intention of reflecting Basque society and values. This article examines the plays of *Etxahun* and *Bordaxuri*, works that were based on historical Basque characters and ancient verses of the nineteenth century, but which he adapted with great freedom, in the service of drama and passion. Conflicts between father and son, entrenched love, and social tension appear in these works, within a tragic mechanics. As a playwright, these plays show that Larzabal mastered the classical codes of dramatic art (the law of units, the structure of action...) perfectly, creating characters that are not at all vague: they are men and women of great strength, plunged into the midst of conflicts with all the tragedy of life.

**Key words:** Piarres Larzabal, theatre, classic, Basque tradition, Basque culture

## I. ANTZERKI EGILE GAZTE BAT BERE BIDEA EGITEN

1950eko hamarkadaren hastapenean, Piarres Larzabalen lehen obrek bihurtu nagusi bat markatu zuten Iparraldeko antzerkigintzan. Hegoaldean, XIX. mende hondarretik 1936ko gerla arte, Martzelino Soroak (1848-1902) eta Toribio Alzagak (1861-1861) gisa bereko aldaketa ekarri zuten poxi bat lehenago. Haiek bezala, gizon ikasia zen Piarres Larzabal antzerkiak idazten hasi zelarik. Antzerkigintzaren historia ezagutzen zuen eta arte dramatikoaren landua zuen, ikasketen denboran Uztaritzen, baita ere Parisen egon zelarik soldadogoarentzat, Bigarren Mundu Gerla hasi baino lehen.

Piarres Larzabalek ikasi zuen frantses tradizio literarioa oso aberatsa zen eta, garai hartan, lizeo mailako ikasle guziek klasean lantzen zituzten frantses antzerki ezagunenak, batez ere XVII. mendeko obra nagusiak, tragediak (Corneille, Racine) eta komediak (Molière), baita XIX. mendekoak ere, Victor Hugorenak besteak beste (Hubert 1992; Viala 1997). Piarres Larzabalek tradizio hori ongi ezagutzen zuen eta Molière bezalako autore batentzat zuen miresmena behin baino gehiagotan aitortu zuen bere bizian, Telesforo Monzonen gisan<sup>1</sup>. Bere antzerkien idazmoldean garbiki nabaritzen da antzerkigintza kultu edo literarioaren kodeak menperatzen zituela, besteak beste obra baten dramatikotasuna kudeatzeko prozesua edo pertsonaien eraikitze teknika.

---

<sup>1</sup> Telesforo Monzonek, Molièren *Les Femmes savantes* (1672) antzerkitik abiatuz, *Hazparneko anderea* idatzi zuen eta 1966an estreinatu zuen.

Baina, oinarri «akademikoaz» gain, Piarres Larzabalek badu bigarren erro bat, lehena bezain sakona eta sendoa dena, euskal kulturarena hain zuzen. Tradizio herrikoia (Urkizu 1984) menperatzen zuen hasi zelarik idazten eta, lehen antzerkietan, haren eragina ageri da. Alde satirikoa, Larzabalen obra osoan aurkitzen da, tradizioan zituen forma ezberdinetan: toberak, galarrotsak, auziaren egitura, bertso eta ditxoen erabilera. Alde dramatikoa ere atzematen da, hala nola pastoralak. Genero berezi hori erabili zuen bere obran behin baino gehiagotan, eta oroitu behar da adibidez Orreagako guduaren gaiaz, gisa hartako hiru antzezlan sortu zituela. Baina, euskal kulturaren eragina ez zen antzerki forma nagusietara mugatu, teatro herrikoiarekin batera, euskal kultura bere osotasunean erakarri zuen tauletara, hartarik baitzuen jalgi antzerki anitzen gaia.

## II. PIARRES LARZABAL, EUSKAL KULTURA BIZI BATEN ALDE

Piarres Larzabalentzat askotan aditzen da antzerki egile guziz emankorra izan dela, ehun obra pasa idatzi baititu, antzerki labor eta luzeak bateratuz. Horietan, antzerki luze guziek badute zerbeit ikusteko euskal kulturarekin, izan daitezen komediak eta berdin dramak (Übersfeld 1993).

### 2.1. Komediak eta dramak

Komediak, orduko ohiduren arabera publikoaren dibertitzeko eginak ziren, baina, irri arazteko izanik ere, Piarres Larzabalek euskal funtsaren gainean eraikitzen zituen, hala nola herriko bozak, senar-emazteen arteko gorabeherak edo auzoek beren artean bizi zituzten harreman mugimendutsuak. Orduko ikusle guziak arazorik gabe sartzen ziren komedietan, ezagutzen eta bizitzen zituzten eguneroko egoerak aurkitzen baitzituzten taulen gainean irudikatuak. Dramek aldiz, ez ohizko gertakariak ematen zituzten ikustera askotan, hilketa bat *Etxahun* antzerkian adibidez. Obra horiek bete-betean oinarritzen ziren euskal historian eta euskal kulturaren antzerki egileak iturri «historikoak» erabiltzen baitzituen haien ontzeko.

### 2.2. Obra dramatikoak<sup>2</sup>

Obra dramatiko horien sailkapen bat proposa daiteke, euskal funts kulturala aipatzen duten antzerkien artean. Zenbaitek material mitikoa erabiltzen dute, Erromatarren denboran finkatuak baitira (*Lartaun*, 1969; *Aralar*, 1971) edo, batzuetan, Nafarroako erresumaren hastapenean, Orreagako gudu famatuaren

<sup>2</sup> Nahiz batzuetan tradizioko tragedia baten heina eta itxura hartzen duten, Piarres Larzabalen mota horretako antzerkiak dramak deitzen ahal dira. XIX. mendeko teatroaren tradizioa segituz, drama batek doinu ezberdinak nahasten ahal ditu, une eta pertsonaia tragikoak nahasiz pasarte eta pertsonaia komikoekin batera.

inguruan (*Orreaga*, 1964; *Ibañeta*, 1968; *Orria*, 1974). Beste batzuek material historikoa erakartzen dute tauletara, Erdi Arotik hasiz (*Angles ginelarik*, 1973), XVII. mendetik iraganez (*Matalas*, 1968), Frantses Iraultza arte (*Sarako Lorea*, 1964). Eta azkenik, bizpahiru antzerki erreferentzia literarioen gainean eraikiak dira: *Etxahun* (1951), *Bordaxuri* (1952), *Berterretx* (1955).

### 2.3. Euskal kultura, pasio guzien ontzia eta gordetegia

Erran bezala, Piarres Larzabalek euskal kulturari, aurkitu zuen hastapenetik bere antzerkien egiteko materiala. Beste munduko edozein jendek bezala, euskaldunek beren nortasun osoa agerrarazi dute mendez mende sortu duten kulturari. Alde horretatik, euskal kulturaren balio unibertsalaz segur zen Piarres Larzabal. Sorkuntza literarioak behar diren sentimendu nagusiak, erran nahi baita amodioa eta adiskidetasuna, zuzentasuna eta leialtasuna, sufrikarioa eta pena, herra eta bekaizgoa, hots gizon-emazteen baitan aurki daitezkeen pasioak oro euskal kulturari berean ikusten zituen hark. Grezia zaharreko tragedia egileek orduko eta inguruko gizartearen atzeman zituzten beren teatroaren haziak (*Viala* 1997). Jendeen artean (eta berdin, lehen lehenik, beren baitan) aurki zitezkeen pasioak izan ziren antzerkien osagai eta sugaiak. Larzabalek gisa bereko lantegia ireki zuen euskal kulturari.

## III. ITURRI LITERARIOAK ETA IDAZLEAREN AUKERAK

Abiapuntu horretatik joanez, Piarres Larzabalen lehen bi obra dramatikoak, *Etxahun* (1951) eta *Bordaxuri* (1952) guziz eredugarriak izan ziren. Bi obra horien idazteko, Iparraldean zeuden XIX. mendeko bi erreferentzia literario nagusi hartu zituen oinarritzat. Baina, dokumentazio historikoa eta literarioa antzerkien edukiarekin konparatuz, berehala ageri da Piarres Larzabalek askatasun handiarekin erabili zituela. Gertakariak Zuberoan eta Hazparden utzi zituzten aztarnak, lekukotasunak, bertsoak eta berdin adituek XX. mendean zehar egin zituzten azterketak, hots eskuragai zuen dokumentazio guzian bere aukerak egin zituen antzerki egileak. Eta erran daiteke, hein handi batean, datuak aukeratu zituela bere antzerkien egitura eta dramatikotasuna hobesteko gisan. Ez zen euskal historiaren idazkari soil izan. Sortzaile bezala, arte dramatikoaren arauen arabera egin zituen bere hautuak.

### 3.1. *Etxahun* antzerkia (1951)

#### 3.1.1. *Poeta bilakatu zen koblakaria*

*Etxahun* antzerkiak euskal literaturari aurkitzen den figura arketipiko bat dauka oinarri bezala, erran nahi baita, XIX. mendean izan den koblakari handienetarik bat, *Etxahun* Barkoxe (1786-1862). Bere garaian, Pierre Topet *Etxahun* (sortetxearen izena) ez zen ingurukoak ohar gabetarik bizi

izan. Barkoxeko laborarien artean, etxe eta funts jabe izateko mentura ukan zuen sortzean berean, baina gorabehera asko ezagutu zituen bere bizi luzean (Haritschelhar 1969). Preso egon zen zenbait urtez, bizpahiru aldiz auziperatua izan zen eta, hondarrean, hiltzaile bezala ekarria. Azkenean, sortzean ukan zituen funts eta ontasunak oro jan zituen zahartu aitzin eta erromes gisa bukatu zuen bere bizia. Herrian, oro har Zuberoan eta laborarien artean fama txarra bildurik ere, ospea eta ohoreak ukan zituen koblakari gisa. Haren bertsoak eta kantuak probintzia osoan ezagunak ziren eta, sortzailea zendu ondoan ere, luzaz egon dira jendeen memorian, «Ofizialeak» eta «Belhaudiko bortian» bezala. Bi kantu horiek argitaratu ziren, euskal kantuen lehen bilketan<sup>3</sup>.

### 3.1.2. *Etxahun, figura konplexu bat. Antzerki egilearen libertatea*

Antzerki horretan, hastetik buru aurkitzen dira Etxahun Barkoxeren obratik hartuak izan diren xehetasun biografikoak, izan daitezen historikoak eta soziologikoak. Oroitarazi behar da, antzerkia estreinatu zen garaian (1951), Pierre Lhandek eta Jean Larrasquetek argitaratu berri zutela Etxahun Barkoxeren obra osoa, 1946an hain zuzen, *Le Poète Pierre Topet dit Etchahun (1786-1862) et ses œuvres* izenburuarekin. Obratik abiatuz beraz, Larzabalek bere bilketa egin zuen, xehetasun batzuk hartuz eta beste batzuk baztertuz.

Bistan dena, poesia autobiografikoak zituen gehien bat erabili Etxahunen biziaren aipatzeko, hala nola «Ürxaphala», «Mündian malerusik» («Desertüko ihizik»), «Bi berset dolorüsik», «Ahaide delizius huntan» batez ere. Oroitarazi behar da ere, poesia autobiografikoen artean, gaur egun ezagutzen ditugun poesia guziak ez zirela oraindik beren osotasunean ezagutuak, hala nola 1834an Etxahunek idatzi zuen «Etchahunen bizitzaren khantoria»<sup>4</sup>. Eskuragai zirenen gainean bermatu zen Larzabal Etxahuni buruzko xehetasun biografikoen emateko, hala nola Santa Graziko Engrazi Pelentorekin ezkondu zela eta harekin haurrak ukan zituela. Antzerkian erraten da ere preso egon zela Etxahun andrearekin bai eta auzo batzuekin ere ukan zituen arazo batzuegatik.

Bestalde, beste kantu batzuk erabili zituen, adibidez «Bi ama alaba», «Gaztelondo Handian» eta «Gaztelondoko neskatalak», eta bertso horietan agertzen ziren pertsonaiak antzerkian eragile bilakatu ziren. «Barkoxeko eliza» kantuan Etxahunek kondatzen zituen apezarekiko hika-mikak ez zituen egia historikoaren arabera erakutsi, baina atxiki zuen bien arteko gatazka. Antzerkian, apezak elizatik kanporatzen du Etxahun, baina ez kantuan bezala, meza nagusiaren denboran, gaztigu sozial baten eran. Antzerkian beti, apezak laguntza ezin hobia ekarri zion Etxahuni, mendira ihes joan zelarik auzo bat tiroz erail ondoan. Bistan dena, egiazko bizian ez zen holakorik izan. Beraz, aldaketa horretarik ageri da garbiki Larzabalek bere antzerkiaren eraikuntzarako

<sup>3</sup> Francisque Michel, *Le Pays basque, Poésies populaires des Basques*, 1857.

<sup>4</sup> Jean Haritschelharrek 1970ean argitaratu zuen kantu hori, poesia autobiografikoen artean luzeena, *L'œuvre poétique de Pierre-Topet-Etchahun* argitalpenean (Euskaltzaindia), haren argitzeko behar ziren xehetasun kritiko guziak emanik.

behar zituen gertakari batzuk jalgi zituela beren kontestutik, beste gisa batetara erabiltzeko.

### 3.1.3. *Etxahun Barkoxeren auzi publikoa antzerki baten bidez*

Baina, Piarres Larzabalek Etxahunen biziarekin hartu zuen libertate handiena beste nonbait aurki daiteke. Badakigu Etxahunek bere emazteari leporatzen ziola Hegiapahal auzoarekin ibiltzea eta senar-emazteen arteko gorabehera gehienak gertakari horretarik heldu zirela. Ezkontzaz kanpoko harreman horri Larzabalek iturri bat asmatu zion bere antzerkirako. Engrazi eta Hegiaphalek gazte denboran amodiozko harreman bat ukan zutela kondatu zuen, gero ezkontzeko orduan alde batera utzi zutena, burasoen manuak segitzeko gisan. Eta oroitu behar da holako zerbait gertatu zitzaioela Etxahuni berari gazte gaztea zelarik. Aitamek utzarazi zioten maite zuen emazte gaztea (etxeko sehia Maria Rozpide), haurdun zelarik, «Ürtxaphal bat» kantuan kondatua den bezala. Askotan gertatzen ziren ezkontza antolatuak hemen gaindi ere. Etxahunen kasuan, gurasoek ezkontza antolatu zioten Engrazi Pelentorekin, Santa Graziko neska gazte aberatsarekin hain zuzen, etxeko sehiarekin ezkontzea ez baitzen gisa Etxahunea bezalako laborari etxe handi baten premuarentzat. Beraz, ikus daitekeen bezala, Etxahun Barkoxeren bizian izan ziren egiazko gertakariakin ari izan zen lanean Larzabal, *Etxahun* antzerkiaren egitura eraikitzeko unean.

Eta iturri ezberdinetatik —Etxahunen bertsoetatik lehen lehenik— heldu zen «hirukotearen» fama eta ekarri zituen ondorio mingarriak. Larzabalek asmakizun horri indar handia eman zion erakusteko amodio trabatua, gizon-emazteen arteko maitasun harremanak, baita bekaizgoa ere ekintzaren egile eta eramaile bilakatu zirela. Antzerkian, pertsonaiek bizitzen dituzten makur eta ezbehar batzuen kausa edo iturritzat emanak dira. Beraz, hortik garbi gelditzen da Piarres Larzabalek erabiltzen zituela iturri literarioak eta kulturalak oinarri gisa bere antzerkien sortzeko eta antolatzeko, baina behar dituen xehetasunak hartuz bere antzerki egile lanean, ekintza eta drama eragile gisa.

## 3.2. *Bordaxuri antzerkia (1952)*

### 3.2.1. *Hazparneko bertsolariak gai emaila*

*Bordaxuri* antzerkian, «Galerianoaren kantua» (Haritschelhar 1963) deitzen den kantu famatua erabili zuen Piarres Larzabalek bere bigarren sorkuntza luzearentzat. Kantuak XIX. mende hastapenean izan zen gertakari latz bat kondatzen du, familiako gatazka bat, hain zuzen aitasemeen artekoa. Plumaeneko laborari etxean, Martin seme gehienak aitaren segida behar zuen hartu. Baina, tokiko historian eta kantuan ahantzia izan den arrazoi batengatik, Martinek bere etxe partea eskatu zion aitari eta aitak ez zion eman. Kalapita batzuen ondotik, 1815ean, uztailaren 4an, auzo batek arma tiro bat bildu zuen. Martin hobenduntzat ekarria izan zen eta preso altxatua. Ondotik, Paueko auzitegian epaitua izan zen semea.

Hein handi batean, antzerkia bertsoen hari beretik aitzinatzen da, sei akta edo gertalditan. Ahozko tradizioak «Galerianoaren kantua» bezala atxiki dituen bertsoak guziz sarkorrak dira, hunkigarriak bezain garratzak. Martin, Plumaïeneko seme gehienaren ahotik atereak balira bezala emanak dira antzerkian. Eresi luze horrek arrasto nagusi bat utzi du euskal kulturen eta jendeen memorian, molde tragiko batez bururatu baitzen kantuan kondatua den gertakaria. Martin 1815ean epaitua izan zen Paueko auzitegian, betirako kondena bildu zuen eta Rocheforteko presondegira igorria izan zen. 1821ean, presondegi gogor hartan hil zen berrogeita bat urtetan. Antzerkian, auzi hori baino zenbait egun lehenago abiarazi zuen ekintza Piarres Larzabalek, Bordaxuritarren etxondoan, Plumaïenean.

### 3.2.2. *Piarres Larzabal, bertsoetarik abiatuz XX. mende Erdiko euskal gizartea gogoan. Gatazka soziala*

Bertsoen hari narratibotik ibilirik ere, Piarres Larzabalek, *Etxahun* antzerkian bezala, *Bordaxuri* obran komeni zaizkion aldaketa batzuk egin zituen, bere obraren dramatikotasuna indartu beharrez. Aldaketa horietarik biga baizik ez dira hemen aipatuko.

Kantuaren arabera, Martinen kondenarazteko, «osaba burgesak» ilobaren kontrako lekukotasuna eman zuten lekukoak bildu omen zituen diruaren sari. Egiazko gertakarian, osaba apezaren, baina Larzabalen antzerkian osaba «amerikanoa» bilakatu zen. Sosez brokaturik itzuli zen Ameriketatik eta, diruaren gostuz inguruko gizartea bere gisara berrantolatu nahi zuen, lekukotasun faltsu batzuen bidez eta, berdin, jujeak erosiz. Bistan dena, aldaketa horren bitartez, Larzabalek gizarte mailako mezu bat eman nahi zuen. Amerikanoaren figura «ezkor» hori askotan agertzen zen garai hartako literaturan. Tradizio literario horren arabera, sorterrira itzultzen ziren amerikano horiek, Ameriketara irabazi diruarekin itxuraldatzen zuten Euskal Herriko gizarte tradizionala, tokiko orekak hausten zituztelarik beren probetxurako (Larzabal 1957). Orduko literaturan, kontrako itxura ere hartzen zuen artean amerikanoaren figurak, baina, irudi baikorra aise gutiagorik aurkitzen zen<sup>5</sup>.

### 3.2.3. *Gatazka sozialaz gain, amodio trabatu bat eta bekaizgoa eragile gisa*

Bigarren aldaketa ere guziz asmatua zen *Bordaxuri* antzerkian, baina ondorio nagusi batzuk ukan zituen antzerkiaren egituraren gainean. Kantu famatuan «Aitari galdeginik sortzeko parte» izan zen gatazkaren sua piztu zuen eskaera. Antzerkian aldiz, amodio ixtorio bat zen konfliktoaren oinarria. Semeak auzoko neska batekin ezkondu nahi zuen, Katxotegiko Klotildarekin hain zuzen, baina

<sup>5</sup> *Hiru ziren* (1957) deitu antzerkian, bi figura kontrajarriak irudikatu zituen Piarres Larzabalek. Herri beretik hiru mutiko gazte joan ziren elkarrekin Ameriketara XX. mende Erdian. Hiru-retarik bat bakarrik itzultzen da aberasturik eta, beste biak ez bezala, ontasunak eta aholku onak hedatzen ditu bere inguruan, amerikano onaren irudia itxuratuz.



Bordaxuri bere aitak eza eman zion. Antzerkian, emeki-emeki agertzen zen aitak ere, gazterik alargundua baitzen, Klotildarekin nahi zuela bigarren ezteietan ezkondu. Antzerkiaren hirugarren gertaldian, neskak aitari eskatu zion Martin bere semearekin ezkontzeko baimena eta, bide batez, haren kontra muntatua zen auzia alde batera utz zezan. Eta, Martinen aitak eskaera horiek bortizki baztertu zituen, bide batez erakutsiz bekaizgoa izan zela semearen kondena arazteko egiazko iturria. Beraz, *Etxahun* antzerkian bezala, *Bordaxuri* obran ere amodio trabatu batengatik ziren aita-semeak beren artean haserretu.

Etxahun Barkoxe eta Bordaxurirekin, Piarres Larzabalek euskal Kulturako bi erreferentzia literario nagusi erabili zituen. Baina garbi dago ez zuela figura horien erabilera laua egiten. Bi pertsonaia sendo eta indartsu eman zituen xutik, ez baitezpada eredugarriak —ohizko ikuspegi moralaren aldetik— eta maitagarriak. Baina kemen handiz beteak ziren, maitasuna, gorrotoa eta bekaizgoa bezalako pasio eramangarrienek gaindituak. Denbora berean, bi pertsonaia horiek oso konplexuak ziren psikologiaren aldetik.

#### IV. PIARRES LARZABALEN OBRAN, EUSKAL KULTURAK ETA ARTE DRAMATIKOAK ELKAR OSATZEN

Aurreko lerroetan aipatu den egia historikoarekiko askatasun hartze horretan aurki daiteke Larzabalen antzerki egilearen artea, drama bat eraikitzerakoan. Iturri literarioetatik helburu sozialetaraino doazen ardatzen artean, baldintza estetikoaren artean ere bai, Larzabalek bere aukerak egiten ditu antzerkigintzaren bidean.

##### 4.1. Arte dramatikoaren kodeak ezagutzen zituen antzerki egile bat

Piarres Larzabalek antzerkigintza erroitik maite zuen. Parisen egon zelarik, Bigarren Mundu Gerla aitzin, arte dramatikoa ikasi zuen eta obra asko irakurri. Iparraldeko antzerkigileen artean, aitzinekoekin konparatuz, Larzabalek urrats handi bat aurrera egin zuen dramatikotasunaren aldetik (Urkizu 2000). Eta ohar bera egin daiteke hizkuntzaren erabiltzeari begira, egun guzietako hizkuntza naturala maisuki erakartzen baldin bazuen taulen gainera, bazekien ahozkotatasunaren errekurso erretoriko nagusiak —ditxoak eta erran zaharrak, besteak beste— txertatzen pertsonaien arteko solasaldiei (Lharthomas 1980).

Baina Larzabalen antzerkigintzak dituen sail guziak batera ezin aztertuz, oinarritzko ardatzetik abia daiteke, erran nahi baita ekintza nagusiaren kudeaketa. Piarres Larzabalek ongi ezagutzen zuen frantses teatroaren tradizioan (XVII. mendekoa), hiru unitateen legea aurkitzen da oinarri eta abiapuntu gisa: lekua, denbora (iraupena) eta ekintzaren arteko kudeaketa. Tradizio horren arabera, antzerki batean konda daitekeen gertakari batek egun bat (goizetik arratseraino, argi hastetik iguzki sartzetarako) behar zuen iraun, leku berean iragan eta ekintza batez osatua izan, hastetik bururaino. Mendeak aurrera joan arau, antzerki egileak askatu ziren arau hertsu horietatik baina, hiru unitateen kezka ez zen XX. mendeko lehen partean oraindik gainditua, hain eraginkorra izan baitzen XVII. mendeko eredu frantses teatroaren tradizioan.



Piarres Larzabalen lehen bi antzerki dramatikoetan (*Etxahun*, *Bordaxuri*) guziz nabaria da hiru unitateen arteko kudeantza (Hubert 2021). *Bordaxuri* antzerkian argi dago leku bat baizik ez dela agertzen, Bordaxuritarren etxea, Plumaienea hain zuzen. Etxearen barnean iragaiten dira, lehen eta hirugarren eta laugarren gertaldiak eta bigarrena, etxetik hurbil dagoen erleteri edo kofoinen lekuan<sup>6</sup>. Azken bi gertaldiak dira salbuespen bakarrak antzerkian, apezaren etxean eta herriko hilerrian iragaiten baitira. *Etxahun* antzerkian, «lekua» zabalagoa da. Barkoxe herriak dio bere eremua eskaintzen leku batasunari, plaza eta eliza, baita oihana eta mendia ere Etxahun ihesi abiatzen delarik. Baina ekintzaren muina biltzen duen lekua Etxahunea da, erran nahi baita Pierre Topet koblakariaren sortetxea, amodioaren pasioak eragiten duen hirukotearen (senar-emazteak eta Hegiaphal auzoa) biltokia.

Ekintzaren iraupenari begira ere, hiru unitateen batasuna oso zaindua da. Bi antzerkietan, pertsonaien bizian aurkitzen diren bi une berezi eta korapilatsuen denbora mugatuan biltzen dira bi ekintzak. *Etxahun* antzerkian, koblakaria presondegitik atera berria da eta etxera itzulia da. Bikotekideek eginahal guziak egiten dituzte berriz egokitzeko eta familian bizitzeko. Eta biak ados izanik bide horretarik ibiltzeko, ezbeharrak agertzen dira. Andreak eskaturik, Etxahunek elizako urratsak bete nahi ditu, Pazkoak egin aitzineko konfesaldiarentzat. Plazako eta elizako joan-jina egiteko artean da makurtzen ekintza. Engrazi bere emaztearen maitale ohia (Hegiaphal) etxean sumaturik, haren ondotik doa Etxahun arma eskutan. Gauaren ilunean, haserrearek eta bekaizgoak itsuturik, beste auzo bat (Joanes) erailtzen du Etxahunek, ustez eta bere etsaia (Hegiaphal) tirokatzen duela. *Bordaxuri* antzerkian berriz, ekintzaren parte handiena Martin semearen auziaren denboran biltzen da, zenbait egun lehenago eta ondotik heldu diren egunetan. Bigarren antzerki horretan ere, guztiz trinkoa da ekintzaren iraupena.

## 4.2. Antzerkia, mekanika itsu bat bezala

Eta, iraupenaren bildutasun horren erakusteko ezin hobeki, bi antzerkiak *in media res* hasten dira. Antzezleen bitartez eta bat-batean, autoreak sarrarazten gaitu ekintzaren muinean, xehetasun handirik eman gabe aitzineko gertakariez. Pertsonaien arteko gatazkek aitzina eramaten gaituzte indarrez beren oldarrean, nahi ala ez.

Etxahunek bere Pazkoak egin nahi dituelarik, erran nahi baita giristino batentzat bihotz-arimak berritzera prestatzen denean, elizatik kanporatua da, jendeen arteko ez ulertze batengatik. Denbora berean, senarra etxetik falta sumatzen duenean, Hegiaphal auzoa (maitale ohia) agertzen zaio Etxahunen

<sup>6</sup> *Bordaxuri* antzerkian erakutsia den bezala, baserrian norbait hiltzen zelarik etxeko helduek behar zituzten, jendez kanpo, kabalak eta erleak galtze horretaz abisatu. Horrengatik da *Bordaxuri* Plumaieneko nagusi berria etxeko erleteri edo kofoinetara joaten, Ganixen hiltzearen biharamun goizean, erleen abisatzeko etxeko jaun zaharra zendua dela. Ez egiteak makurrak eta zorigaitzak ekar litzakeela uste zuten orduko jendeek, sinesmen zahar batzuen arabera. Kristo aitzineko ohi-dura zahar horiez aparte, beste informazio soziologiko, etnologiko interesgarriak badaude oraindik bi antzerkietan.

andreari. Emazteak ezkontzaz kanpoko harreman hori gelditu nahi lukeela adierazten diolarik maitale ohiai, senarra elizatik uste baino goizago itzultzen zaio. Berehala, elkarrikuste berri horretaz oharturik, Etxahunek auzoaren hiltzeko erabakia hartzen du eta ezinbestezko mekanika bat bezala, zorigaitzak gaina hartzen dio senar-emazteen arteko bake esperantzari. Uste gabetarik dira nahigabe edo ezbehar horiek gertatu. Antzerkigintzaren hizkuntzan, «quiproquo» batzuen gainean eraikia da ekintza eta horien bitartez doa aitzina, denei zorigaitza eta makurrak ekarriz.

*Bordaxuri* antzerkian, ezinbestezko zorte edo zorigaitz berberak ditu pertsonaiak aurrera eramaten. Urguiluak, bekaizgoak eta gorrotoak itsuturik, Bordaxuri Plumaieneko nagusiak bere ingurutik uxatzen ditu haren laguntzera heldu zaizkion jendeak.

Eta zortearen ezinbestezko mekanika horretan, *Bordaxuri* antzerkian, herri ohidurrek ere parte hartzen dute. Jakiten dutelarik Bordaxuri (Martinen aita) bigarren ezkontzaz nahi lukeela ezkondu Klotildarekin —hots preso altxarazi duen bere seme Martinen emaztegaiarekin— Hazparneko gazteriak galarrotsak edo tutak antolatzen ditu haren kontra, holako kasuetan maiz egiten zen bezala. Eta tuta horietan, musika tresna eta kaxa zahar batzuen bidez zernahi arrabots egiten diote etxe inguruan eta bertso satirikoak jartzen dizkiote ospatzekoa den ezkontza xedearen salatzeko gisan<sup>7</sup>.

Aita-semeen arteko gatazka hori etxean berean ezin konponduz, auzitegira eramana izan da, «Galerianoaren kantu» famatuak kondatzen duen bezala. Karia horretara etxeko barneko disputa publikoa bilakatzen da, bat eta bestearen aldekoak elkarren kontra jartzen dituelarik. Baina egunero gazteek Bordaxuri laborari jabe ospetsuari egiten dioten gaueko «sasi auziaren» kariatetan, justiziaren eremutik jalgitzen da gatazka. Soziologikoa bilakatzen da gatazka, herriko gazteek eta jende xeheek jabe eta sosdunei zuzentzen dizkieten auzia eta justizia eskaera bilakatzen da. Zorigaitzaren ibilbide bortitz horretan, jendeak, etorki eta izate soziologikotik kanpo ere, eramanak dira urean lasto izpiak bezala. Norbanako gisa, jende gisa galtzen dute beren biziaren oreka eta gidaritza. Ondorioz, herioak jotzen ditu Bordaxuritarak, Ganix auziperatuaren aitatxi bihotzeko batez eta Bordaxuri bera, bere buruaz beste egiten duelarik<sup>8</sup>.

#### 4.3. Pertsonaiak indar joko batean sartuak

Arte dramatikoaren arauen artean, pertsonaien eraikuntza eta haien bilakaera (antzerkiaren denbora mugatua) garrantzi handikoak dira (Übersfeld 1981). Pertsonaiak, nagusiak bereziki, indar joko batean hartuak eta eramanak dira. Eta indar joko horren bidez, aurrera eramaten dute antzerkiaren ekintza, zortearen mekanika itsuari gorputza eta jende itxura emanez. Bordaxuri eta Etxahun ez dira

<sup>7</sup> Maizenik, gaueko burrunba horri segida ematen dio gazteriak, jaun esposak diru zama bat luzatu arte, zerga gisa, herriko gazteek beren artean pesta bat antola dezaten.

<sup>8</sup> Nahiz ez den xuxen hola errana, pentsa daiteke hartaratua dela hondarrean Bordaxuri, bere etxeko hilobiaren aitzinean erraten duelarik etxeko zenduei haiengana heldu dela.

pertsonaia lauak, arruntak. Harri oso batez eginak dira; maitasuna eta gorrotoa batera erabiltzen dituzte, elez baina ekintzez ere, pasioek itsuturik. Gizon bortitzak dira biak eta ez dute oztoporik onartzen beren desio eta nahien bidean, eta, trabak bidetik kentzeko gisa, joan daitezke biak ukaldika aritzerraino edo auzo bat tirokaterraino, Etxahunen kasuan. Beraz, pertsonaia indartsuak dira eta antzerkian agertzen den ekintza hastetik buru beren kabuz eramaten dute bi gizon horiek.

Baina aipatu bi antzerki horietan agertzen diren pertsonaia gehienak ez dira karrikatura hutsak, ez dira itxura soilak. Haragiz eta odolez eginak dira eta, beren zainetan dabilkien odol beroak beren pasio gehienak erakartzen ditu argira. Nahiz jende indartsuak diren, Etxahun eta Bordaxuri konplexuak dira denbora berean. Biek beren pasioak eta erabakiak azken mugaraino eramanik ere, hondarrean, biak damutzen dira. Berantegi bada ere, aldatzeko prest agertzen dira azkenean, beren damua aitortuz. Pertsonaia nahasi horien bitartez, Piarres Larzabalek erakusten du jende gogo baten izate korapilatsua. Adierazten du halaber ez dela sekulan norbait eman behar galdutzat ongirako, azken unean onera egiten ahal baitu inork ez duelarik gehiago ezer igurikatzen harengandik. Etxahun eta Bordaxuriren bitartez, filosofikoki eta batez ere ikuspegi giristino batetik, azken mementoko damuari esker, beren burua salbatzen dute.

Antzerkian agertzen diren bezala, Bordaxuri eta Etxahun ez dira jende arruntak herriko biztanleen artean, dudarik gabe, guti baitira jendetasunaren mugak gainditzeko prest daudenak beren nahi eta gutiziak bururaino eramateko gisa. Baina, denbora berean, 1950eko hamarkadako laborarien gizartean, ez dira eguneroko biziaren eremutik kanpo gelditzen, beren pasioen iturriak ongi partekatuak baitira herriko jendeen artean. Kezka edo gutizia horiek nahas-mahas emanik, auzoen arteko hika-mikak, amodio isilak edo aitortuak, lurren eta ondasunen jabetza, elkarren arteko bekaizgoa, horiek oro Bordaxuriz eta Etxahunez gain beste askoren bihotz gogoetan bizirik dirauten sentimenduak dira. Hortik ere heldu da Piarres Larzabalek sortu zituen pertsonaien indarra: eguneroko bizian sartuak dira, gai arruntetan murgilduak.

Eta bere antzerkietan eraikitzen dituen pertsonaia sistema orokorrean, nagusiez gain, bigarren mailakoak ere asko lantzen ditu Piarres Larzabalek. Haien artean, nortasun handikoak badira, hala nola, Engrazi (*Etxahun*) eta Klotilda (*Bordaxuri*), bi emazte garrantzitsuak ekintzarako, bakoitza bere antzerkian. Bigarren mailako funtsezko pertsonaietan, bitartekari eta oreka ekarle diren bi apezak ere kemen eta nortasun handikoak dira. Biek bakea ekartzen dute eta haiek dute bakarrik lortzen Bordaxuri eta Etxahun bezalako jite bortitzak zentzutzen.

## V. ANTZERKIAREN ERAGINA, ANTZOKITIK KANPORA

Aldi berean egunerokoak eta neurriz kanpokoak izanez, Piarres Larzabalen pertsonaiek ikusleagoa hunkitzen dute (Landart 2019). Ikusleak haiengandik hurbil senditzen dira, pertsonaiek ispilu bat emango baliote bezala taularen gainean. Antzokitik haratago nahi du mintzatu Piarres Larzabalek eta entzule gisa dituen jende mota guziei zuzentzen dizkie bere mezuak (Echeverria 2016).

Muntatzen dituen antzerkietan, publikoa dibertitzeaz gain, Piarres Larzabalek hiru funtzio ezberdin eta berezi ematen dizkio teatroari. Lehenik, helburu didaktiko bat finkatzen dio, erran nahi baita, Euskaldunen argitzeko idazten eta taularatzen dituela antzerkiak. Haurtzaroan eskolan ikasi ez dituzten historia eta kultura hedatzeko gisan mintzatzen zaie ikusleei. Helburu didaktiko horrez gain, bi mezu mota nagusi baditu bere entzuleari begira. Alde batetik, mezu sozial eta politiko bat badu, gizarte mailakoa, gizartearen antolaketa hunkitzen duena. Euskal gizarteak dituen kezak eta arazoak denen bistan aurkezten ditu. Eta bestaldetik, mezu pertsonal bat, norberari zuzendua dena, eta etika mailakoa dena. Jakinez Piarres Larzabal apeza dela, etika mailako ardatzak ikuspegi giristinoa erakartzen du argira. XX. mende Erdiko laborarien arteko gizartean guziz hedatua zen Eliza katolikoaren moralak. Ondorioz, gisa horretako mezuak arazorik gabe ulergarriak bilakatzen dira orduko ikuslegoarentzat.

### 5.1. Euskal kultura euskaldunei jakinarazi

*Etxahun* antzerkian euskal kulturari lotua da lehen mezu nagusia. Oinarri literarioa edo historikoaren gainean eraiki dituen antzerkietan, Larzabalek euskal kulturari buruzko xehetasun beharrenak hedatu nahi ditu ikuslegoan. Etxahunen kasuan, adibidez, XIX. mendean izan den euskal figura literario nagusi bat ezagutarazi nahi du, 50eko hamarkadan, jende gehienek ez baitzuten ezagutzen. Barkoxeko koblakariaren bertso famatuena erabiliz, Etxahunen bizia kontatzen du, antzerkian agertzen den une korapilatsu eta dramatikoan bilduz poetaren datu biografiko gehienak.

Beraz, gisa batez, euskaldunek beren historia eta kulturari buruz dituzten hutsuneak, jakitate eskasak osatu nahi ditu antzerki egileak. Horrez gain, bigarren helburu bat badu, etikari lotua. Garaikide ukan zituen jende gehienek gaizkile bat bezala ikusten zuten Etxahun: emaztea jotzen zuen senar gaixtoa; mokorzale eta mihi gaizto lanjerosa, auzoak bortizki erasotzeko gai zena; denen jorran ari zen bertsolari paregabea, baina urrikirik gabekoa. Gainera, laborarien begietan gaizki ikusia zen, ezinbestez: etxe handi eta aberats baten semea izanki (zazpi etxeren premu, kantuak dion bezala), bizia bukatu zuen zorrez itoa eta miserian, familiaren ontasunak oro janik. Luzaz, herriaren memorian hartaz gelditu den fama txarrak beherakada sozial horren lekukotasuna eman du.

### 5.2. Antzerkiaren funts politikoa eta funtzio soziala

*Bordaxuri* antzerkian bi mezu badira gizarte mailakoak direnak. Lehenak dio familiaren barneko gatazkak etxekoen artean konpondu behar direla denen onetan. Eta Bordaxuri zaharra, Ganix auziperatua den Martinen aitatz, barkamenaren eta bakearen alde mintzatzen zaio Bordaxuriri lehen gertaldiaren hastapenean (Larzabal 1991 [1952]: 7):

Ganix: Piarres (auziperatua), gure odolarik duk, Bordaxuritarra; hi eta ni beza-la... Haren ohorea galtzen baduk, hira eta gurea ere itzaliko duk.

Mezu hori, norberaren etika mailakoa izanik ere, denen ulertzeko moduan da, besteak beste garaiko jendeentzat, Eliza katolikoaren irakaspenari lotua zelakoan, barkamenaren erreferentziarekin.

Bigarren mezuak hedadura handiagoa du garai hartako gizartearen baitan, eztabaidatua zen gai bat erakartzen baitu antzokira. Piarres Larzabalek bertso zahar famatuek kondatzen dutena desbideratzen du eta Bigarren Mundu Gerla ondoko gai bat aurkezteko gisan: laborarien munduaren berrantolaketa eta lur jabetzaren problematika. Etxalde handietako jabeak eta lur gabeko etxetiar edo bordarien arteko gatazkak itxuratuak dira *Bordaxuri* antzerkian, *Bordaxuri* eta Katxo pertsonaien bitartez. Bien arteko solasaldien arabera, lur jabe handiek lur jabetza ukatzen diete lurrik gabe daudenei, laborari munduan lurraren lantzetik heldu delarik bizitzeko ahala.

Zuzen kontrako, injustizia horren erakusteko parada bilakatzen da Piarres Larzabalentzat Martin Larralderen auzia. Katxo bertsolari famatua da Hazparneko eskualdean, baina bordaria da sortzez, etxalde eta lurrik gabeko gizona. *Bordaxuri* aldiz, jabe handien alderdikoa baita, bere buruaz segur da eta bere estatu sozialaz ez du duda izpirik. Katxo eta etxetiar guziak, erdi buhame eta erdi jende bezala ikusten ditu eta bortizki mintzatzen da, batere pentsatu gabe diskriminazio horren oinarria nola sortu den. Katxok aldiz bere giza dretxoak errespetarazi nahi ditu. Bordari guzien izenean, hastapenean lur eta etxe baten jabetza eskatu gabe ere, jendeen arteko tratamendu berdina, duintasuna galdetzen dio *Bordaxuriri* (Larzabal 1991 [1952]: 13):

*Bordaxuri*: Jakintzak zerbaitetarat heldua denak, bere balioaren frogak emanak dituela... Herrestan dabilanak, nun ditu frogak zerbaitetako on dela?

Katxo: Zer dituzu espantu horiek? Dituzun gehienak ondoriotasunez izanak dituzu... Gu bezala pakante borda txar batean sortu izan bazine, uste duzua gu baino gehiago izanen zinela oraiko orenean? Zerbait diren gizon gehienak, bertzez dire zerbait, ez eta berez.

Oro har, lur jabetzatik hara, solasaldi horien gaia hauxe da: zer da gizontasuna edo jendetasuna? Zerk du ematen? Ontasunek, lurrek ala jendeen baitako beste zerbaitek? Erran daiteke hori dela *Bordaxuri* antzerkian Piarres Larzabalek pasarazten duen mezu soziala eta etikoa. Bigarren Mundu Gerlatik landa euskal gizartea bestelakotzen ari zen azkar eta barna. Ameriketara saldo handian joan ziren Euskal Herrian lurrik eta etorkizunik gabe bizi zirenak. Baina hango ateak emigrazioari zerratu ondoan, beste mugimendu bat abiatu zen laborantza munduan.

Herri bakoitzean, lurrak eta bordak salgai eman ziren eta ordu arteko etxetiar anitz jabe bilakatu ziren hogeita hamar urteren barne, 1950, 1960 eta 1970eko hamarkadetan. *Bordaxuri* antzerkiak aldaketa soziologiko horren lekukotasuna ekartzen du, erakusten duelarik iparraldeko ikuslegoari egoera soziala aldatuz doala. Bide batez, antzerki egileak aldaketa (soziologiko) horiek eztabaidatu nahi ditu publikoki, gizartearen baketzeko bide batez. Eta antzerkiak agerian ematen duen mezua garbiki agertzen zaio 1950eko ikuslegoari: bakoitzari eman berea, justiziaren alde jokatzeko eta gizartea baketzeko gisan.

### 5.3. Helburu katartikoa

Jendeek beren baitan galdan dauzkaten pasioak kanporatzen dituzte elkarren arteko harremanetan: amodioa, gutizia edo desioa, herra eta gaineratikoak. Aro zaharretik hona, teatroak etengabe erakusten dituen barneko argi-itzalak dira, betiko sentimendu ilunak. Erakusterakoan, «egin behar ez dena» erakustean, pasio kaltekorrak nahi lituzkete sendatu antzerki egileek. *Mimesis* eta *catharsis* deitzen dira teatroaren funtzio eta eragin berezi horiek, *mimesis* pasio kaltekorrez oroitzeko gisa eta *catharsis* pasioen ondorio ezkorren sendabide eta sendagailu bezala.

Itzal horiek oro kontuan harturik, Larzabalek beste mezu bat pasarazi nahi du: Etxahuni, eta hura bezala hobendun ekarriak direnei, bigarren aukera eman behar zaiela. Etxahun norberaren etikaren leihotik erakusten du, moral girixtinoaren ikuspegitik. Ebanjelioan bezala, pekaturik gabekoa has dadila Etxahun kondenagarria harrikatzen! Antzerkian, hauxe da Piarres Larzabalek zabaltzen duen mezua: «Ez juja axaletik, itxuren arabera; ez kondena norbait betirako, nornahi izanik ere, aldatzeko aukerarik eman gabe». Mezu morala eta giristinoa da *Etxahun* antzerkitik jalgitzen dena. Beltzaren beltzean, argi izpi bat agertzen da, berpizteko esperantzaz betea.

*Bordaxuri* eta *Etxahun* antzerkietan, helburu kulturalaz beste, Piarres Larzabalek antzokitik mezu bikoitza zabaltzen du, mezu soziala eta etikoa. Alde batetik, jendeek berek behar dutela beren gizartea antolatu edo behar orduan berrantolatu; bestaldetik, norberak bere ikuspegi etikoa landu behar duela, ongiaren eta justiziaren arabera jokatzuz beti.

## BIBLIOGRAFIA

### Piarres Larzabalen obrak

- Larzabal, P. (1991 [1951]) «Etxahun», *Piarres Larzabalen idazlanak 1*, Donostia, Elkar.
- Larzabal, P. (1991 [1952]) «Bordaxuri», *Piarres Larzabalen idazlanak 1*, Donostia, Elkar.
- Larzabal, P. (1991 [1957]) «Hiru ziren», *Piarres Larzabalen idazlanak 1*, Donostia, Elkar.

### Euskal antzerkigintza

- Echeverria, I. (2016) *Piarres Larzabalen antzerkigintza: 1950-1982. Euskarazko antzerki identitarioaren paradigmak*, Bilbo, Euskaltzaindia-Euskararen erakunde publikoa.
- Haritschelhar, J. (1970) *L'œuvre poétique de Pierre-Topet-Etchahun*, Bilbo, Euskaltzaindia.

- Haritschelhar, J. (1969) *Le poète Pierre-Topet-Etchahun*, Baiona, Société des Amis du Musée Basque.
- Haritschelhar, J. (1963) «Martin Larralde-Bordachuri, le poète galérien», *Gure Herria*, 512.
- Landart, D. (2019) *Komediaz komedia, Lapurdin eta Baxenabarren (1945-1970)*, Donostia, Elkar.
- Urkizu, P. (1984) *Euskal antzertia*, Donostia, Euskadiko antzerti zerbitzua.
- Urkizu, P. (2000) «Teatro del XX», in *Historia de la literatura vasca*, Madril, UNED.

### **Antzerkigintza (erreferentzia orokorrak)**

- Hubert, M.-C. (1992) *Histoire de la scène occidentale*, Paris, Armand Colin.
- Hubert, M.-C. (2021) *Les grandes théories du théâtre*, Paris, Dunod.
- Lharthomas, P. (1980) *Le langage dramatique*, Paris, PUF.
- Ubersfeld, A. (1981), *Lire le théâtre I*, Paris, Belin-Sup.
- Ubersfeld, A. (1993) *Le Drame romantique*, Paris, Belin-Sup.
- Viala, A. (1997) *Le théâtre en France des origines à nos jours*, Paris, PUF.



